

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO PRESIDENTEAREN EBAZPENA, 2019KO IRAILAREN 3KOA, GUFE-KO GERENTEAREN ALDI BATERAKO ORDEZPENA XEDATZEN DUENA.

Gobernu Batzordeko presidentea:

**AURREKARIA.**- Erakundearen gerentearen lanpostua bete gabe dago orain arte postu horretan egon den pertsona kargugabetua izan delako; beraz, aldi baterako ordezpena egin behar da izendapen berria egin arte, GUFEn estatutuetan ezarritakoaren arabera.

**OINARRI JURIDIKOA.**- GUFEn estatutuen aldaketari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, arloko zuzendari batek —presidenteak aukeratuta— egingo du gerentearen ordezpena, gerentea falta bada; eta Pertsonak Zuzentzeko Departamentuaren burutzak halako zuzendaritza-izaera du — postu asimilatua baita—, izendapena gorabehera.

Aurreko guztia dela eta, Zerbitzu Orokorrren Departamentuko buruak proposatzen dizu honako ebazpen-proposamen hau onar dezazun:

#### EBAZPENA

**Lehenengoa.**- GUFeko gerente postua hutsik dagoen bitartean, Eneko Gutiérrez Coterón Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak beteko ditu postuari dagozkion eginkizunak.

**Bigarrena.**- Ordezpena dela-eta emandako egintzetan espresuki adieraziko da hala ematen direla.

**Hirugarrena.**- Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruari, Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko buruari, Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko buruari, Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioko buruari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari helaraztea ebazpen hau.

Nolanahi ere, zeuk ebatziko duzu egokiena.

Bilbo, 2019ko irailaren 3a

Zerbitzu Orokorrren Departamentuko burua

Sin.: José Luis Camarón Bonacasa

GUFEn Gobernu Batzordeko presidentearen  
EBAZPENA, 2019ko irailaren 3koa.

Aurreko proposamena ikusita, osorik onartzen da.

Aurrekoa bete bedi.

Sin.: Sergio Murillo Corzo